

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Haur sahararrak gure artean

Urtero bezala hemen ditugu haur eta gazte sahararrak. San Joan bezperan iritsi ziren eta gehienek San Joan suaren magia eta misterioa ezagutuko zuten Euskal Herriko hainbat plaza eta txokotan. Etorritako egun berean hainbeste berde, hainbeste ur, hainbeste musu eta iluntzean suaren sorginkeria eta xarma ezagutu duten ume hauek ez dute berehala ahaztuko gure herriak eman dien harrera bero eta goxoa. Euren buruetan jostalari ibiliko dira oroitzapenak San Joan bezpera gaueko sugarren mihi kiribilkariak airean bezala.

Gure herrietan hezetasuna, landaredia, kolore berdearen gama guztiak aurkituko zituzten basamortuko kolore hori, marroi eta okreetara ohitutako gaztetxoek. Eta ibaiak, piszinak eta itsasoa izango dira euren gozamen iturri. Esperientzia berri hau bizi osoan itsatsita eramango dute oroimenean eta eurentzat Euskal Herria Paradisu edo Harkadia zoriontsu bezala gordeko dute haurtzaroko oroitzapen goxo eta indartsuetan.

Gure herria solidarioa eta esku zabal izan da herri behartsu eta zanpatuekin. Seguru asko Euskal Herria behar gorrian egon denean, gosea edo gerratea tarteko, beste herrialdeak solidario izan direlako berarekin.

Baina atsekabea ere tokatzen zaio tartetan gure herriari. Frantziak eta Espainiak mendeen daukatenetik, eta estatu horietako Konstituzioa



DANI BLANCO

ezarri zitzaigunetik, ez dugu bake iraunkorrik ezagutu. Ez gara geure buruaren jabe eta itxurazko demokrazia inposatu batek markatzen digu pausoa norantz eta noraino eman. Hortik aurrera mehatxua, mendekua eta zigorra dator.

Azken erasoetako bat Frantziatik datorkigu. Frantses Hizkuntzaren Akademikak mokordo galanta jaurti du hango legegileen kontra, Konstituzioan bertako hizkuntza minorizatuak “ondare” gisa onartu dituztelako. Betiko

beti-ni-ni-ni... egozentrikoek ez dute ez lotsarik ez gizalegerik ez gizatasunik. Gizatxar handiusteen modura hizkuntza, kultura, nazio... txikiak nahierara zanpa daitezkeela uste dute eta ahots ozenez aldarrikatzen dute, gainera. Madarikatu zikinak! Ez dira konturatzen beren ipurdi zantarrean zintzilik darabiltela mokordo nardagarria eta ez dira lotsatzen zabaltzen duten kirats higuigarriak.

Orain, badirudi Frantziako Senatuak berretsi egin duela Akademikaren proposamena, alegia, onartu egin dute hizkuntza minorizatuak Frantziako ondare gisa Konstituzioaren lehen artikuluan ez agertzea. Ez dakit zein ondorio juridiko izango duen honek. Baina kaka eginda dago jadanik. Urrun gaitezen jendilaje horren eginkarieratik, akademikak epidemia gaiztoren bat ekarriko baitugu bestela. ■



Euskal Herria Paradisu edo
Harkadia zoriontsu bezala
gordeko dute haurtzaroko
oroitzapen goxo eta indartsuetan



TXANDAN

Edu Zelaieta



Ea asmatzen dudan gertatuaren berri zehatza ematen: Gasteizko

Olagibel anbulatorioan gaude, esperoan; zenbakiak ematen dituen makina blokeatu dela dirudi. Ondorioz, makinarik gabeko duela ez gehiegiko egoera ezagun batera itzuli gara bertakook: jendea txanda eskatzen eta ematen hasia da, azkena nor den galdezka. Ilara antolatzeke arazo handirik ez, itxura batean. Hiruzpalau minuturen ondoren, ordea, norbait ohartu da makina badabilela berriz. Paperezko zenbakiak gure artean banatzeko ordua iritsi da, beraz.

Zer uste duzue gertatu dela? Jendeak borrokan egin duela lehen zenbakiak eskuratzegatik bost minutu (zazpi,

Munduaren neurria

gehienez) irabazte aldera? Edo, beharbada, pentsatzen duzue medikuaren ordua eskatu nahi dugun

hamar lagun inguru modu zibilizatuan moldatu garela, liskarrik gabe eta? Ez genion, bada, txanda elkarri emana lasai eta aurpegi onez, elektronikaren laguntzaririk gabe?

Aitzitik, anbulatorioak munduaren neurria hartu du bat-batean: bat baino gehiago jarri da urduri; batek baino gehiagok jan du arestiko hitza. Tragediaren handia agertu da: hamar laguneko mikro-jendarte batean konpondu ezean, nola demontre moldatuko gara milioika pertsona? ■